

- 9 AURKEZPENA 2014-2015
- 10 INTRODUCCIÓN 2014-2015
- 11 INTRODUCTION 2014-2015

Xabier Arakistain, Lourdes Méndez (Zuzendariak / Directoras / Directors)

- 12 ARTEAREN ARLOTIK, JAKINTZA ETA LAN KIDETZA
FEMINISTAKO NAZIOARTEKO BELAUNA LDIARTEKO
ETA DIZIPLINARTEKO SARE BAT EHUNTZEN.
- 18 TEJIENDO, DESDE EL CAMPO DEL ARTE, UNA
RED INTERNACIONAL, INTERGENERACIONAL
E INTERDISCIPLINAR DE CONOCIMIENTO Y
COLABORACIÓN FEMINISTA.
- 24 WEAVING AN INTERNATIONAL INTERGENERATIONAL
AND INTERDISCIPLINARY NETWORK OF FEMINIST
KNOWLEDGE AND COLLABORATION THROUGH ART

2014

María Xosé Agra Romero

- 30 EMAKUME BORTITZA, USTEKABE? ARTEARI,
FEMINISMOARI ETA INDARKERIARI BURUZKO
APUNTEAK
- 148 ¿ACCIDENTALIDAD DE LA MUJER VIOLENTA? APUNTES
SOBRE ARTE, FEMINISMO, VIOLENCIA
- 270 THE ACCIDENTALITY OF THE VIOLENT WOMAN? NOTES
ON ART, FEMINISM AND VIOLENCE

Kajsa Dahlberg

- 46 FEMALE FIST [UKABIL FEMENINOA]
- 164 FEMALE FIST [PUÑO FEMENINO]
- 284 FEMALE FIST

Soledad Novoa

- 60 ARTEA, FEMINISMOA, INSTITUZIOA
- 178 ARTE, FEMINISMO, INSTITUCIÓN
- 298 ART, FEMINISM, INSTITUTION

Marie-Josèphe Bonnet

- 74 EMAKUME ARTISTEN AINTZATESPENA. TRANSMISIO
SINBOLIKOARI BURUZKO GOGOETAK
- 192 EL RECONOCIMIENTO DE LAS MUJERES ARTISTAS.
REFLEXIONES SOBRE LA TRANSMISIÓN SIMBÓLICA
- 310 RECOGNITION OF WOMEN ARTISTS. REFLECTIONS ON
SYMBOLIC TRANSMISIÓN

Carol Duncan

- 92 ARTE FEMINISTAREN HISTORIA BATEN BILA 70EKO
HAMARKADAN
- 210 LA BÚSQUEDA DE UNA HISTORIA DEL ARTE FEMINISTA
EN LOS AÑOS SETENTA
- 326 SEARCHING FOR A FEMINIST ART HISTORY IN THE
1970S

Haizea Barcenilla

- 108 BEGI ITSUAK
- 226 OJOS QUE NO VEN
- 340 EYES THAT DO NOT SEE

Margaret Harrison

- 124 MARGARET HARRISON ETA HILARY ROBINSONEN
ARTEKO ELKARRIZKETA, GOLDEN THREAD, BELFAST
- 244 CONVERSACIÓN ENTRE MARGARET HARRISON Y
HILARY ROBINSON EN EL GOLDEN THREAD, BELFAST
PASAR TODO A USTED
- 356 MARGARET HARRISON IN CONVERSATION WITH
HILARY ROBINSON AT THE GOLDEN THREAD,
BELFAST

2015

Xabier Arakistain

- 382 ZERGATIK EZ JUDY CHICAGO?
- 460 ¿POR QUÉ NO JUDY CHICAGO?
- 540 WHY NOT JUDY CHICAGO?

Edward Lucie-Smith

- 390 JUDY CHICAGO ETA NARRATIBA FEMINISTA
- 468 JUDY CHICAGO Y LA NARRATIVA FEMINISTA
- 546 JUDY CHICAGO AND THE FEMINIST NARRATIVE

Andrew Perchuk

- 398 ESTETIKA FEMINISTA, LANGILEA ETA POP
- 476 ESTÉTICA FEMINISTA, OBRERA Y POP
- 552 POP, BLUE COLLAR, AND FEMINIST AESTHETICS

Jane Gerhard

- 412 JANE GERHARDEN TESTOA
- 490 TEXTO DE JANE GERHARD
- 564 TEXT BY JANE GERHARD

Amelia Jones

- 424 JUDY CHICAGOREN «WILL TO POWER» [«BOTERE-
NAHIA»], ETA ARTE FEMINISTAREN ASMAKUNTZA,
KURADORETZA-PRAKTIKA GISA, LOS ANGELESEN,
1970EKO HAMARKADAN
- 504 «WILL TO POWER», DE JUDY CHICAGO, Y LA
INVENCION DEL ARTE FEMINISTA COMO PRÁCTICA DE
COMISARIADO EN LA CIUDAD DE LOS ÁNGELES EN
LOS AÑOS 70
- 576 JUDY CHICAGO'S «WILL TO POWER» AND THE
INVENTION OF FEMINIST ART AS A CURATORIAL
PRACTICE IN 1970S LOS ANGELES

Lourdes Méndez

- 444 DESORDENATZEA, IRAULTZEA, DESARAUTZEA: JUDY
CHICAGOREN IKONOGRAFIA SEXU-GENITALA
- 524 DESORDENAR, SUBVERTIR, DESREGULAR: LA
ICONOGRAFÍA SEXO-GENITAL DE JUDY CHICAGO
- 594 DISORDER, SUBVERSION, DEREGULATION: JUDY
CHICAGO'S SEX-GENITAL ICONOGRAPHY
- 458 JUDY CHICAGOREN ARTELANEN IRUDIAK
- 538 IMÁGENES DE OBRAS DE JUDY CHICAGO
- 606 IMAGES OF WORKS BY JUDY CHICAGO

2012 eta 2018 artean Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok *Ikuspegi feministak ekoizpen artistikoetan eta artearen teorian* ikastaroa antolatu du; Lourdes Méndez, UPV/EHUko Artearen Antropologiako katedradunak, eta Xabier Arakistain, arte-komisarioak bikain zuzendutako programa.

Ikastaroa urtero egin da herrialde, diziplina eta belaunaldi desberdinetako emakumeek gizarte garaikideetako ekoizpen artistikoari buruz duten pentsamendua eta analisia hedatu asmoz.

Ikastaro hauetan berrogeita hamar emakume inguruk hartu dute parte, batzuk artistak dira, besteak akademikoak, erakundeetako zuzendariak, ikertzaileak, arte-komisarioak eta -kritikariak; profesional hauen lanari harrera egiteko, finantzatzeko eta hedatzeko zubi izan dira ikastaroak, baita ekoizpen artistikoan sexuak, etnizitateak, arrazak eta klase sozialak duten eraginaz hausnartzeko bide ere. Emakume ikertzaileek ezagutza ez sexista eraikitzen jarraitzeko aurre egin beharreko arazo historikoak, teorikoak eta politikoak ere aztertu dira ikastaroan.

Hiru liburukiko sail honen argitalpenak 2012-2017 ikasturteko parte-hartzaileen ekarpenak biltzen ditu, eta 2018ko ikastaroaren argitalpenarekin hasitakoa osatzen du. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoaren eta Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren konpromisoari esker izan da posible, emakumeak gizartearen eta kulturaren alderdi guztietan eta, bereziki, artearen sisteman sartzea eta ikusaraztea normalizatzea funtsezkoa dela erabat sinetsita baitago.

Entre el año 2012 y 2018 Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao organizó el curso *Perspectivas feministas en las producciones artísticas y las teorías del arte*; un programa codirigido por Lourdes Méndez, Catedrática de Antropología del Arte de la UPV/EHU, y Xabier Arakistain, comisario de arte.

Las diferentes ediciones del curso se celebraron anualmente con el interés de difundir el pensamiento y el análisis de mujeres de diferentes países, disciplinas y generaciones sobre la producción artística en las sociedades contemporáneas.

Estos cursos, en los que han participado medio centenar de mujeres artistas, académicas, directoras de instituciones, investigadoras, comisarias y críticas de arte, han servido de robusto puente para acoger, financiar y divulgar el trabajo de estas profesionales y reflexionar en torno a la incidencia que tienen el sexo, la etnicidad, la raza y la clase social en la producción artística. Al tiempo que se han tratado los problemas históricos, teóricos y políticos a los que se enfrentan las investigadoras para seguir construyendo un conocimiento no sexista.

Esta publicación es parte de un conjunto de tres volúmenes, que recoge las contribuciones de las diferentes participantes en los cursos 2012 a 2017, y que completa la iniciada con la publicación del curso correspondiente a 2018. Ha sido posible gracias al compromiso de Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao y el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia desde la profunda convicción de que es fundamental normalizar la incorporación y visibilización de las mujeres en todos los aspectos de la sociedad y la cultura y especialmente en el sistema del arte.

From 2012 to 2018, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao organized *Feminist Perspectives in Artistic Production and Art Theory*. The course programme was co-directed by Lourdes Méndez, Chair of Anthropology of Art at UPV/EHU, and art curator Xabier Arakistain.

Annual editions of the course sought to increase the reach of the thoughts and analyses of women from different countries, disciplines and generations concerning artistic production in contemporary societies.

More than fifty women artists, academics, directors of institutions, researchers, curators and art critics participated in Feminist Perspectives, which has served as a robust bridge for hosting, financing and exhibiting their work. The courses provided a space to reflect on how sex, ethnicity, race and social class affect artistic production, while also addressing the historic, theoretical and political issues that women researchers face in constructing nonsexist knowledge.

This publication is part of a three-volumes set, which brings together the contributions of the different participants in the 2012 to 2017 courses and completes the series that began with the publication of the 2018 course. It has been made possible thanks to the commitment of Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao and the Department of Employment, Social Cohesion and Equality of the Provincial Council of Bizkaia, based on the profound conviction that it is essential to normalise the incorporation and visibility of women in all aspects of society and culture, especially in the art system.

ARTEAREN ARLOTIK, JAKINTZA
ETA LANKIDETZA FEMINISTAKO
NAZIOARTEKO BELAUNA LDIARTEKO
ETA DIZIPLINARTEKO SARE BAT
EHUNTZEN.

Xabier Arakistain eta Lourdes Méndez

Liburu bilduma honek 2012 eta 2017 artean Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon *Ikuspegi feministak produkzio artistikoan eta arte teorian* ikastaroan emandako hitzaldiak biltzen ditu. Xabier Arakistainek eta Lourdes Mendezek elkarlanean zuzendutako ikastaroa 2008an hasi zen Montehermoso Kulturunean. 2008 eta 2011 urteen artean eta 2018an ikastaro bakoitzari dagozkion aktak argitaratu 2008 eta 2011 artean eta 2018an ikasturte bakoitzari dagozkion aktak argitaratu ziren, baina 2012 eta 2017 artean ez dugu behar besteko aurrekonturik hitzaldiak itzultzeko, editatzeko eta argitaratzeko. Finantzaketa hori lortzea izan da zuzendari gisa urte hauetan lortu nahi izan dugun beste helburuetako bat. 2025ean, militantzia feministatik zeregin horietako batzuk bere gain hartu ondoren, liburu honek —urtez urte ikastarora joaten zirenei hainbestetan hitza emana— argia ikusten du azkenean.

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon jende ugari bildu da jakintza feministarekin interesaturik, artearen, komisariotzaren, historiaren, soziologiaren eta filosofiaren arloko talde handi batekin elkartzeko gogoz, eta jakintzak, esperientziak eta emozioak partekatzeaz gain, hizketaldi interesgarriak sortu dira. *Ikuspegi feministak produkzio artistikoan eta arte teorian* ikastaroaren asmoak eta helburuak zuzendariak duela bi hamarkada baino gehiago egiten hasi ginen azterketa baten emaitza dira. Bi tokitatik egin genuen lana: alde batetik, Xabier Arakistain artearen komisariotza independentetik aritu zen, eta, beste alde batetik, Lourdes Méndez Donostiako Emakumeen Batzarreko militantziatik, eta, orobat, UPV/EHuko Arte Ederren Fakultateko Artearen antropologiako irakaskuntzatik eta ikerkuntzatik.

Toki horietatik, hain zuzen, zenbait galdera feminista egin genion geure buruari, oinarri-oinarrizko galderatzat hartu genituenak, artearloan genituen, jakintzetatik eta berdintasunaren aldeko borrokatik abiatuta, eta gure sozietatearen, bai eta arte-arlokoan, eta irakaskuntzako eta museoko instituzioetan ere egituratzen dituzten, sexu-harreman sozialen izaera patriarkala erauzteko desirak bultzatuta: Non daude emakume artistak? Non erakusten dute? Artearen historiak haiei buruz hitz egiten al du? Zenbat emakume artista ezagutzen ditu Arte Ederretako ikasle batek (gizon zein emakume izan)? Jaso genituen erantzunekin atsekabetuta, erabaki genuen nork bere arloan eta testuinguru lokalean jardutea, baterako estrategia feminista batetik abiatuta, eta helburu bikoitzarekin: arte-instituzioetan arrakalak irekitzea, eta publiko zabalarari transmititzea XX. mendeko 70eko hamarkadaren hasieratik aurrera arteari buruz sortutako jakintza feministak, diziplina askotan eta nazionalitate eta hizkuntza desberdinetako egileek eginak. Arte-arloan ikuspegi feministatik lanean eman ditugun lehenbiziko 10 urtetan ondorengokoa egiaztatu dugu:

1. Amerikako Estatu Batuetako (AEB) instituzio artistikoek eta akademikoek mundu osoan duten hegemonia Europan modu akritikoan onartutako ikuspegi bat transmititzeko erabiltzen zela, eta, horren arabera, arte feministak AEBetan zuen sorburua. Ikuspegi horrek ezkututzen zuen historikoki, XX. mende erdialdetik aurrera, hala mugimendu feministak, nola arte eta artista feministek Hego/Iparr hizketaldi konplexuan dihardutela.

2. Akademian jakintza feministaren belaunaldien arteko transmisioa oso ahula zela edo ez zegoela horrelakorik. Hala, erreferenterik gabe, belaunaldi berri bakoitzak Akademian irakasle feminista batekin topatzeko zoririk ez bazuen, hutsetik hasi behar zuen bilaketa, eta urtero Mediterraneo aurkitu.

3. Arte eta feminismoaren arteko intersekzioen analisiari dagokionez, ez zegoela inongo diziplinartekotasunik. Errealitate horrek azaltzen zuen onartzen zirela muga diziplinarrak, XX. mendearen hasieran sendotutako 'pastel akademikoaren banaketaren' ondorioa zirenak. Gainera, errealitate hori oztupoa zen pentsamendu feminista eraikitzeke eta erakusteko, Geneviève Fraisse filosofoa feminista frantsesak dioenez, feminismoak pentsatzen du, feminismoaren tresna teorikoen kaxa ezin dela ortodoxoa izan, bere pentsamendua egin ahala eraikitzen dela eta pentsamendu feminista ulergarria egitea ondorio politiko sakonak dituen desira teoriko bat dela.

Hiru ondorio horiek ikusita, erabaki genuen nazioarteko, belaunaldiarteko eta diziplinarteko ikastaro bat antolatzea, Euskaditik nazioarteko sare bat eraikitzen hasteko, Mendebalde modernoak gehien mistifikatu dituen bi jarduera-esparrutan aritzen ziren emakume egile eta artista feministak harremanetan jartzeko: esparru akademikointelektualekoak eta artekoak. Dirudienez, lehen arloan dena egiten da Zientziarekiko amodioagatik; bigarrenean, berriz, Artearekiko amodioagatik. Mistifikazioak mozorrotzen ditu bi arlotan izaten diren borroka latzak, teoria, obra eta artista jakin batzuk ezartzeko eta beste batzuk bazterrean uzteko eginak. Baztertutako teorien artean, feminista gehienak; baztertutako obren eta artisten artean, emakume artistek ekoiztutako gehienak, eta, era berean, etniko etiketapean sartutako artistenak. Antza, batzuk eta besteak hain dira bereziak eta zehatzak, non ez baitago modurik Artearen Historian inskribatzeko.

Lourdes Méndezen iritziz, helburua zen irakaskuntzaren bidez antropologia feministaren edukiak helaraztea, eta antropologia hori aplikatzea bi ikerketa ildotan: alde batetik, natura/kultura dikotomian, eta horrek historikoki sexua, generoa eta sexualitatea eraikitzeke moduan izandako eraginetan; eta, beste alde batetik, emakume artistek arte garaikidearen esparruan duten kokapenaren azterketan. Une batean esperimentatzea ere erabaki zuen, 1987an eta 1988an Donostiako Emakumeen Batzarreko kideekin batera, emakume artisten bi erakusketa antolatuta. Horietan egiaztatu ahal izan zuen emakume artistak eta haien artelanak era artifizialean isolatuta -gaur egun indarrean jarraitzen duen ohitura martxoaren zortziko ekitaldiekin batera-, ez dela lortzen letra larritz idatzitako Artisten zerrendan emakumeak inskribatzeko helburu feminista, ez eta horien obrak kanonikotzat hartzea ere.

Xabier Arakistainen ustez, laurogeita hamarrekoko hamarkadaz geroztik, kontua izan zen sexuen arteko erakusketa parekideak programatzea, eta helburua gauzatu egin zen. Horrela, parekidetasuna lor zitekeela erakustez gain, egiaztatu zen proposamenaren kalitatea hobetu egiten zuela emakume artistak eta emakume artista feministak programazioan txertatzeak, Gasteizko Montehermoso Kulturunean zuzendari izan zen garaian frogatu ahal izan zen bezala. Orobat, Arte Garaikidearen Nazioarteko Azokan (ARCO), (2004-2006), arteari eta feminismoari buruzko Mahaiak zuzentzeko ahalegina egin zuten, haietan artean aditu ziren emakumeak eta emakume teoriarari feministak elkartzuz, ondorengokoak aztertzeko: artistek artearen arloan duten kokapena, arlo horretan dagoen diskriminazioa, eta hor eurentzat tarte bat egin ahal izateko topatzen dituzten zailtasunak. Mahai horietako batean izandako eztabaida biziaren ondorioz, 2005. urtean, Eusko Legebiltzarraren Berdintasunerako Legea onetsi aurretik, ARCO'05 Manifestua idatzi zuten. Horrek neurriak hartzeko eskatzen zien administrazio publikoei, artearen esparruan aukera-berdintasuna bermatzeko. Manifestua Berdintasunerako 2007ko Lege Organikoaren 26. artikulua oinarria izan zen, artikulua horrek ia eduki osoa jaso baitzuen. Tamalez, artikulua horrek gomendio-izaera du soilik, eta, gaur egun, indarrean sartu zenetik hamaika urteren ostean, bete gabe jarraitzen du oraindik.

Beharbada, lorpen horiek ikusita, gure tokian-tokiko testuinguruan pentsatu daiteke, XXI. mende betean eta Arte Ederretako fakultateetan ikasleen ehuneko hirurogei baino gehiago emakumeak izanda, dagoeneko ez dela beharrezkoa artearen arloan emakumei eta beste subjektu historiko minorizatu batzuei eragiten dien desberdintasunaren kontra borrokatzeko estrategia feministak eraikitzea. Hala eta guztiz ere, aski da gogoraraztea Sofia Erregina Arte Zentroaren Museo Nazionalak (MNCARS) Espainiako emakume artisten %4 besterik ez duela bere bilduman, edo, esate baterako, Bilboko Arte Ederren Museoan izandako erakusketa nabarmenetako batean, Koplowitz bildumakoan, 97 artisten lanak erakutsi dituztela orain dela gutxi, eta horietatik bi besterik ez zirela emakumeak. 20 urte geroago, egin diren ahalegin guztien arren, dirudienez, diagnostikoa oso antzekoa da. Emakumeek %25eko presentzia gainditu ezinik jarraitzen dute museoetako eta artezentroetako programetan eta bildumetan. Era berean, Arte Ederretako fakultateetan -emakumezko irakasle feministek beren irakasgaietan bultzatzen dituzten ekimenez harago-, ikuspegi feministak txertatu gabe daude oraindik, hala graduen mailan, nola masterren mailan. Horrela, androzentrikoak diren diskurtsoak transmititzen dira, promozioz promozio, ezagutza kontua izango balitz bezala. Errealitate onartezina da hori, eta aurre egin behar zaio, bai hezkuntza-sisteman bai sozietatesisteman, bai eta arte-sisteman ere. Hori dela eta, *Ikuspegi feministak ekoizpen artistikoetan eta artearen teorietan* ikastaroa tresna ez ortodoxoa iruditzen zaigu «Feminismoak pentsatu egiten duela» erakusteko, publiko zabal bati, espezializatua izan ala ez izan, arteko jakintza feministak proposatuz. Virginia Woolf-ek *Three Guineas* (1938) lanean idatzitak soz, ikastaroaren arabera, jakintza feministetatik abiatuz arteaz kritikoki hausnartzeko, ez da aski emakumeak jasotzea, «artista» kategoriari «emakumeak», «lesbianak»,

«euskaldunak» edo «beltzak» azpikategoriak gaineratuta. Jakintza feministetatik abiatuz arteaz kritikoki hausnartzeko artea zeharkatzen duten klase, sexu, arraza eta sexualitateko desparekotasunek egiturazko izaera duela kontuan hartu behar da nahitaez.